

LEZAMA, UMEEN HERRIA

Edo nola egin Umeen Herri fantastiko baterako pentsatutako ideia eta proposamen zoragarriak benetazko gure Lezamara ekartzeko? Galdera horren gainean prestatu genuen LEUKOren urtarrilaren 17ko saioa.

Aurreko egunean egin gabe geratu ziren bi aurkezpenak eginez hasi genuen saioa: Duvier eta Aitorrek beraz beren herriak aurkeztu dizkigute. Gero, hamabi umeen herri idealen proposamen guztiak Umeen Herria panelean bistan ditugula, ume bakoitzari GEHIEN GUSTATZEN ZAIZKIGUN BIAK hartu eta beste panel huts batera eramateko eskatu diogu. Panel horri gero "Lezama" deitu diogu, eta ideia bakoitzari buruz banan-bana hitzegiten hasi gara:

- Proposamen bakoitza nola ekar zitekeen Lezamara.
- Proposamenek atzetik zein gai planteatzen dituzten.

Herri fantastiko batetan pentsatzen ari garenean gure behar eta gabeziei aurre egitean pentsatzen dugu, eta nahiz askotan proposamen horiek bere horretan gure herrira ekartzea oso zail izan daitekeen, atzean dauden gaiei buruz hitzegitea oso interesgarria gerta daiteke.

Adibide bi:

-Ume batek bere herrian "Uda urte osoan" izatea nahi duela idazten duenean... Zertaz ari da? Eguraldiaz? Oporraldi-bizimoduaz? Bere familiarekin batera plan gehiago egin nahi izateaz?

-"Gurasoak umeez aparte bizi dira, 6 kilometrotara dagoen herri batetan" esaten duenean, zertaz mintzatzen ari zaigu ume hau? Autonomia handiagoa eskatzen ari da agian? Zertan gauzatu liteke autonomia behar eta gabezia hori gurasoak Larrabetzu edo Zamudioraino bidali gabe ere?

Zinez eztabaida mamitsuak dauzkagu zain alegiazko herri hori eta gurearen arteko salto hori egiterakoan... Azkenerako ordea umeak oso aztoratuta zeuden eta saioa gelditu behar izan genuen. Aurreko saioa larunbatez giro lasai eta langile paregabean egin eta gero, halako zerbait espero genuen saio honetarako ere, baina ostiralak ostiral dira munduko ikasle guztientzat. Hogei minutu lehenago kalera irten eta plaza batean jolasten aritu ziren tarte batez. Jarraituko dugu honekin...

Hurrengo bilera otsailaren 7an izango da.

Hemen ikusi eta jaitsi ditzakezue bilera honetako argazki guztiak:

<https://flic.kr/s/aHsmKQdfie>

